BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

821

AGINDUA, 2014ko abenduaren 15ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Rafael Escolá». fundazioaren azkentzea berretsi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko abenduaren 3an, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Erregistroan ondoko eskrituraren bi kopia baimendu jaso ziren: Fundación Rafael Escolá fundazioa azkentzeko erabakiak publiko egiteari buruzkoa, hain justu ere 2014ko azaroaren 24an, Bilboko notario den Alfonso Batalla de Antonioren aurrean (protokolo-zk.; 1.758), Don Fernando Querejeta San Sebastián-ek, patronatuko presidente denak, egiletsitakoa.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek espedientea aztertu, eta ondoren, erabaki-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioak bete egiten du honako xedapen hauetan ezarritakoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua, eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Hirugarrena.– Legitimatuta dagoen pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 33. eta 34. artikuluetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 46. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuko 35. artikuluan eta fundazioaren estatutuetan, betiere ondarea likidatzeari eta azkentzeari dagokienez.

Laugarrena.– Fundazioen Babeslaritzak onartzeko eta Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agirietan ikusten denez, Fundazioaren Patronatuak 2014ko urriaren 29an fundazioa azkentzeko hartutako ebazpena baliozkoa da, estatutuen eta Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioei buruz

indarrean dauden arauetan ezarritakoaren arabera. Agiri horietan, bestalde, jaso egiten da badirela azkentze hura dakarten zioak; hala nola Fundazioa eratzeko helburak –Fundazioaren Estatutuen 3. artikuluan jasotakoak– gauzatzeko ezintasuna.

Patronatuak fundazioa azkentzeko hartutako erabakiaren ondorioz, Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioari entregatuko zaizkio fundazioaren ondare-gerakina osatzen duten ondasun guztiak.

Ondarearen destino hori bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994 Legearen 35.2 artikuluarekin.

Bosgarrena.– 100/2007 Dekretuko 36. artikuluak xedatzen duenez, fundazioa azkentzeko erabakiak edo, hala badagokio, azkentzea deklaratzen duen ebazpen judizialak, amaiera emango die fundazioaren ohiko jarduerei, eta hasiera, likidatzeko eragiketei.

Artikulu horretan bertan adierazten denez, fundazioko gobernu-organoak egingo du azkendutako fundazioaren likidazioa, betiere Babeslaritzaren kontrolpean. Horretarako, fundazioaren gobernu-organoak aktibo- edo likidazio-eragiketa bakoitzaren berri emango dio Babeslaritzari.

100/2007 Dekretuko 36.6 artikuluak ezartzen du zein elementu izan behar dituen Fundazioa likidatzeko eskritura publikoak.

Aipatutako artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baietsi egiten da, batetik, Fundación Rafael Escolá fundazioaren Patronatuaren erabakia, eta, bestetik, 2014ko azaroaren 10eko ziurtagirian jasotako kitapenaren ondoriozko likidoaren destinoa. Erabaki hori publiko egin da 2014ko azaroaren 24an, Bilboko notario Alfonso Batalla de Antonioren aurrean baimendutako notariotza-eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 1.758).

Bigarrena.– Fundazioa azkentzeko erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

Hirugarrena.– Fundazioaren azkentzeak fundazioaren ohiko jarduerak amaitzen ditu, eta hasiera ematen die likidazio-eragiketei, aurretik onartutako programari jarraituz. Fundación Rafael Escolá Fundazioaren Patronatuak garatu beharko ditu likidazio-eragiketa horiek, Babeslaritzaren kontrolpean. Horretarako, Fundazioaren Patronatuak aktibo- edo likidazio-eragiketa bakoitzaren berri emango dio Babeslaritzari.

Laugarrena.– Likidazio-eragiketak amaitu ondoren, Fundación Rafael Escolá Fundazioaren Patronatuak likidazio-eskritura eman beharko du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzara bidali.

Bosgarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 15a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.